



Aikor!

txorierriko aldizkaria

Guraririk onenak, zuentzat




Zerín



Lécara



Larrabetzu



Lora



Sordika



Zamudio

Industriko Mankomunitateak eta Udalerk
zeriunak eta urte berrira onura dute.





Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin, Bestorrene, Iñaki Suarez, Jon Goikouria, Eder Merino eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Atotz Goikoetxea, Iñaki Bilbao, Laura Martinez, Asier Oruebebarria, Juan Luis Goikoetxea, Igor Urrutikoetxea, Juantxu Bilbao, Behar Bidasoa GKE, Oihana Astobieta, Urko Lasarte, Sondikako Goiri Argazki Taldea eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi

Banaketa: Arantza Atxutegi, Gaizka Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITEA
GOBIERNO VASCO

KULTURAREN BAILIA

1. EUSKO JAURLARITEA 2. EUSKO JAURLARITEA 3. EUSKO JAURLARITEA



BFA
DFB
Deutscher Fußball Bund
Fédération Française de Football

1. EUSKO JAURLARITEA 2. EUSKO JAURLARITEA 3. EUSKO JAURLARITEA



diruz lagundutako aldizkaria



26 Euskara Eguna



34 Zamudioko Alkartasun Lagun Taldea



12 Golden Apple Quartet




38 Zamudiko Kamara Korralaren 20. urteurrena




14 Piedra en mano taldea

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Gutunak 6Laburrak eta albisteak
12Gurean izan da... Golden Apple Quartet 14Gaztea
eta... Piedra en mano taldea 16Opa deutsagu...
18Gabonetako egitarauak 26Euskara Eguna
28Publierreportajea 30Oparitu euskaraz
34Zamudioko Alkartasun Lagun Taldea
36Txorierriarrak munduan 38Musika
40Txorierri ezagutu 42Sukaldaritza 45Denborapasa



Betaurrekoak



INES SERRANO
(Irakasle ohia)

Aspaldiko olerkari batek esan omen zuen mundu honetan ezer ez dela gezurra edo egia, dena begiratzen dugun kristalaren araberakoa begitanduko zaigu eta. Guztiz ados nago. Eta horren kariaz inoiz ikasgelan eta lagun artean zera komentatu dugu, norberak bizitzan bere betaurrekoak jantzita eramaten dituela beti; edozein gertaera apur bat, oso edo erabat desberdina suerta daitekeela, segun eta nork atzematen dion, noiz edo nola.

Zer da, bada, betaurrekoen kontu hau? Niretzat ez da gauza arraroa. Betaurrekoak geure ikuspuntuak dira. Bakoitzak baditu bereak, eta horien arabera izaten ditu bere ideiak, sortzen ditu bere iritziak, eta baita aurreiritziak ere. Mundua eta inguratzen gaituen errealitatea modu zehatz batean atzematen dugu, geurean. Ez baita gauza bera umea edo guraso izatea, ikasle edo irakasle, polizia edo lapurra, munduari buruz dugun irudia izaterakoan.

Eta, nire uste apalean, objetibotasunik existitzen ez denez (nahiz eta gauza batzuk beste batzuk baino objektiboagoak iruditu), bakoitzak bere betaurrekoak eramaten ditu aldean, nahi eta nahi ez, horretaz ohartu ala ez. Horregatik uste dut lan interesgarria dela geureak zein kolorekoak diren jakiten ahalegintzea, ze itxurakoak, estu-estuak ala zabalak diren argitzea, kristala lodikoak edo mehekoak...

Batzuei segituan atzematez zaie ze motako betaurrekoak daramatzan. Beste batzuei, ordea, igarri ere ez zaie egiten; eta hainbatek egoera eta inguruaren arabera aldatzen dituzte. Bizitzan zehar, benetako-

ekin gertatzen den antzera, moldatu eta egokitu beharra ditugu geu ere aldatzen garen heinean. Komenigarria da, hala ere, lagun zein ezezagunekin elkarri trukitzea, denboraldi txiki baterako bada ere, esperientzia eta ideia berriekin aberastu aldera; eta, batez ere, komenigarria da garbitzea. Gauza guztiak bezala, asko erabili ezker lohitu egiten dira, eta lantzean garbikuzi sakonak on handia egiten du.


Azkenik, kontuan hartu behar da gure betaurrekoak, nortasun agiria bezala, pertsonala eta trukaezinak direla. Inork ezin du (ez luke izan behar) beste inoren betaurrekoak jantzi disimuluan, ez du balio eta. Zorionez, ez dizkigu inolako agintaririk luzatu behar; geuk sortzen ditugu eta,

beraz, gure esku dago nolakoak nahi ditugun erabakitzea. Nik aurtien, salbuespen moduan, Olentzerori berri batzuk eskatuko dizkiot, nireak jausi eta txiki-txiki egingo da gelditu zaizkit eta. Kolore ugariakoak, zabalak eta gardenak eskatu ditut, bizitzan zehar ahalik eta erosoan bidaiatzeko.

“Asko erabili ezker lohitu egiten dira, eta lantzean garbikuzi sakonak on handia egiten du”

Armiarma-sarean harrapatuta

Ordenagailua darabilgun gehienok ia egunero jotzen deusagu atea Google bilatzaileari, hitz gako batzuk emon eta gura dogun informazioa eskaini deigun. Baina, datorren urtetik aurrera, telefono mugikorretara egingo dau salto Estatu Batuetako bosgarren enpresarik handienak. Eta, horrek zer esan gura dau? Ba telefonoetan daukagun informazioa monitorizatuta egongo dala. Google-ek eta bere atzetik datozen enpresa guztiek gutako bakoitzaren gustuak oso definituta eukiko ditue; azken baten, giza-kion egunerokotasuneko lerroak antzera idatzita dagoz. Antzeko lekuetan ibiltzen gara eta produktu bardin antzekoak kontsumitzen doguz, besteak beste. Nahiko da Interneten erosketa pare bat egitea eta web gune batzuk bisitatzea; hortik aurrera, markatuta geratzen dira gure jokerak. Badakie, gitxi gorabehera, non bizi garan, zein hizkuntza ulertan doguzan, eta zeintzuk ez. Erabat kontrolatuta gagoz. Eta egoera gero eta latzagoa izango da, espazio pribatuak ia desagertu egingo diralako.



ATOTZ GOIKOETXEA
(Filologoa eta itzultzailea)

Interneten hasierako filosofia, norberaren jakituria hedatu eta mundu guztian eskuragarri ipintea zan. Gaur egun, barriz, konpainia globalak informazioa lokala lortzen ahaleginduten dira, badakielako bizitza gure herri eta hirietan egiten dogula. Eskaintzen deuskuena da, gugandik hurbilen dagoan jatetxearen iragarkia, gure hizkuntzan argitaratu dan azken liburua... Suitzan bizi dan pertsona bateri guztiz informazio desberdina eskaintzen deusie.

Izan be, informazioa boterea da.



Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@yahoo.es

Territorio libre bakarra

Txorierritar bat gatibu, hizkuntza askean mintzo. "Euskara da gure territorio libre bakarra" Joseba Sarrionaindiaren olerki-esaldia bere osotasunean ulertzeko eta bat egiteko ariketa praktikoa. Mugimendu guztiak zelatan ditugu beti, baina espazio libre bat eraikitzen da patioan, ziegan, bisitan eta zazpigarren loan.

Erroekiko isolamendua, dispertsioa eta bazterketa bultzatzen dituen espetxean komunitate baten partaide uneoro naizela baieztatzen nau geografiaz, mugez eta horretaz ulertzen ez duen territorioak: eus-

karak.

Irakurritz, idatziz, pentsatuz, mintzatuz... dena arrotz eta zapalketa den hone-tan, babes-eraztun bat eratzen dut hizkuntzarekin ene inguruan; etengabe berau elikatzea erronka bat bilakatu zaidalarik. Gustura egindako esfortzua, gogoz ekindako helburua, animuz beteriko unibertsoa.

Euskarazko argitalpen guztiak (aldizkariak, liburuak, egunkariak...) segurtasunagatik atxiki egiten dira hemen. Egokiak diren edo ez ikuskatzeko metodoa eta pakete bidez edo korreoz bidalitakoak

beranduago jasotzeko behin-behineko bahiketa ematen delarik. Euskaraz idatziriko, euskaraz irakur nezaken iragazkia.

Aitzitik, lagun fidelak egin ditut zenbaitzuen artean. Koadrilak eta herrikideak ordaindutako *Berria* egunkariaren harpidetza edo amak hileroko pakete bidez sartzen didan **AIKOR!** aldizkaria, honen lekuko; eskualdeko berriak jasotzeaz gain, territorio libre bakarra lau horma eta barrote hauen artean bizirauteko tresna.

kaomina zareb oke-!rokiA kanugal. ratirreiroxt keutaretsebre ere raheb ugetzutiaz ate.

*Ibon Meñika Orue-Etxebarria, euskal preso politikoa
Teixeiron, 2007ko azaroan*

Inmigrazioa eta Kulturantzatasuna Lanbide Heziketan

Migrazioen fenomenoak dugu mende hasi berri honetako erronka handia. Inmigrazioa eguneroko errealitate bihurtu zaigu, eta aukera iturri ere bai Europarentzat, bertako jaiotza tasa txikia eta langile etorkinak kontratatatzeko gero eta premia handiagoa kontuan hartuta. Lanbide Heziketako ikastetxeek egoera horri aurre egiteko eta gure geletan gero eta etorkin gehiago hartzeko prest egon behar dugu.

Helburu hori lortzeko nahiak eraginda sortu zen CATIT proiektu pilotua (Lanbide Heziketa Tekniko eta Industrialean Kultur Kontzientziazioa sustatzeko). Proiektu horren helburua beste kultura batzuetatik datozen pertsonen eskola- eta lan-integrazioa hobetzea da, bai LHko ikastetxeetan eta bai enpresetan sartzea ahalbidetuko dieten metodologia, tresnak eta material multimedia garatzearen bidez.

Horretarako, prestakuntza ikastaro bat diseinatu da irakasgai teknikoan irakasleentzat eta enpresetako Giza Baliabideen arduradunentzat, pertsona immigranteen beharrak eta zailtasunak ezagutzen eta

ulertzen ikas dezaten eta, era horretan, eskola- eta lan-ingurunean arrakastaz integratzen lagundu diezaieten.

2007ko ekainaren 8an aurkeztu zituzten proiektuaren garapenaren nondik norakoak, Politeknika Ikastegia Txorierrizentzian. Euskadiko Lanbide Heziketako ikastetxeetako 60 bat lagunek hartu zuten parte mintegian.

Mintegian, kulturantzatasunari dodekalogoen eta CATIT proiektuaren bezalako ikastaroen bidez erantzuteko beharra azpimarratu zen. Lehenengoaren eredutzat CE-AR elkarteak aurkeztutako lana (Ekonomia eraginkortasuna eta gizarte erantzukizuna uztartzeko gomendioen dekalogoak) hartu zuten, eta ikastaroen adibidetzat, berriz, CATITen proiektuan antolatutakoa. Horrelako jarduerak baliagarriak izan beharko lukete guztiok gogoeta egiteko, elkar laguntzeko, eta estereotipoak eta leku komunak bertan behera uzteko. Ekar ditzagun gogora Freire jaunaren hitzak: "Nigan ez da berezkoa horrelako irakaslea izatea... Ezinezkoa da horrelakoa izaten

jarraitzea, desberdinak eta desberdintasunak onartu gabe, horien bidez beti zerbait ikasten baitugu" (Freire, 1996:93).

*Anabel Menica
Nazioarteko Harremanetako
Arduradunen Sareko Koordinatzailea*

Bidezuzen estatua

Botere banaketa omen. Epaille, politiko, zein polizia. Danak bat ez?

Botoak ere banatuta omen. Danak bat ez?

Egunkariak ere *Correo Español*, *Diario Vasco*, *El Mundo*, *El País* zein *ABC*. Danak bat ez?

Editorialak ikusterik baino ez dago. Danak faxistak. Amen

Mikel Larrañaga





Bakarkako lehenengo lana plazaratu du Aburruzagak

Xabier Aburruzaga Zamudioko trikitilaria *Bizkaiko Trikitixa* diskoa kaleratu berri du. Hori gaztearen bakarkako lehenengo lana da eta 2004. urtean plazaratutako *Bizkaiko Trikitixa* partitura-liburuari jarraipena ematen dio. Diskoa Durangoko Azokarako atera da, hala ere, aurkezpen ofiziala urtarrilean egingo du Aburruzagak. Hortik aurrera zuzeneko emanaldiei ekingo die.

Jarrilleroak freskotasun puntu bat eman nahi izan dio trikitixa tradizionalari lan honetan. Horrela, *Bizkaiko Trikitixa* liburutik pieza batzuk hartu, eta instrumentu estandarrek gehitu egin dizkie: gitarra, bateria, baxua eta perkusioa, euren artean. Hitzekin ere jolastu du. Kopla zaharrak oinarritzat jo ditu, baina gaur egungo garaietara moldatu ditu, aldaketa klimatikoa, eliza, Euskal Herriko egoera eta beste hainbat gai tratatuz. "Niretzat oso berezia den musika hori atera, eta beste formatu unibertsalago batean zabaltzea izan dut helburu. Hain trikitixa-zaleak ez direnek ere eroso entzun dezaketela pentsatzen dut".

Aburruzagak ia urtebete eman du proiektuarekin hasi zenetik amaitu duen arte. "Nire estudioan grabatzea abantaila izan da, probak patxadaz egin eta gehien gustatu zaigun moldaketarekin gelditze-

ko aukera eman digulako. Prozesua motela izan da, baina ez dugu hasierako kontzeptua galdu eta emaitza ezin hobea lortu dugula uste dut".

Lagunen kolaborazioa

Bizkaiko Trikitixa diskoan euskal kulturako izen handiko pertsonaiek hartu dute parte. Iñaki Aurrekoetxeak, German Meabek eta Paia anaiek, esate baterako, hitzak landu dituzte Aburruzagarekin batera. "Oso ondo ulertu dute nire ideia, eta oso erraza izan da haiekin lan egitea" Beste alde batetik, Mikel Markezek, Amaia Orejak eta Koldo Iturbek ahotsa jarri diete kantuei, beste abeslari batzuen artean. Aburruzagak berak ere kantu bat abestu du. "Oso pozik nago diskoarekin, eman dioten kolorearekin".

Diskoa hamalau kantuk osatzen dute eta hori amaitzea ez da lan erraza izan. "Niretzat abesti berria sortzea moldaketa on bat egitea baino askoz errazagoa da". Aburruzagak ikuspuntu modernoago bat eman dio trikitixa tradizionalari bere lehenengo diskoan. "Trikitixa tradizionala izugarri maite dut, baina kantu bat entzuten denean sorpresa eta emozioak gertatu behar direla uste dut. Musika bizirik egon behar dela. Hori izan da nire asmoa, behintzat".

III. urteurrena ospatzeko ekitaldiak antolatu ditu Arroetak

Arroeta Zamudioko mendi taldeak hiru urte beteko ditu laster eta, urtero egiten duen moduan, hainbat ekitaldi antolatuko ditu urtarrilaren 19an, urteurrena ospatzeko. Horrela, Gotzon Larruzea larrabetzuarrak Jiaizi mendiari buruzko proiektzioa eskainiko du 12:00etan Zamudiotorren. Mendi hori Sichuan-en (Txina) dago. Ondoren trikipotea egingo dute herriko tabernetatik eta 15:00etan bazkaria izango dute. Bazkarian izena emateko azken eguna urtarrilaren 15a da. Ekin-tzetan parte hartu nahi dutenek Arroetakoei jar daitezke harremanetan 94 608 82 85 telefono zenbakian edo arroetamt@euskalnet.net helbide elektronikoan. Bestela, klubetik ere pasa daitezke martitzenetan eta barikuetan, 19:30etik 21:00etara bitartean.

Derioztarrek HIESaren aurkako III. Kultura Astean hartu dute parte

Bizkaiko hiru Gobernu Kanpoko Erakundeak (GKE) –Asociación T4, Comisión ciudadana anti-Sida de Bizkaia eta Itxarobide Elkarteak– HIESaren aurkako III. Astea antolatu zuten azaroaren 21etik urtarrilaren 1era bitartean. Derio aste horretan parte hartzerako gonbidatu zituzten udalerrietarikoak izan zen.

Udalak 1.000 preserbatibo pack banatu zituen herritarren artean. Ekimenak derioztarrak prebentzioaren garrantziaz jabetzea zuen helburu. Horrezaz gainera, erakusketa bi ikusteko aukera egon zen Derion, eta Elsa Fuente UNICEF-eko Euskal Herriko arduradunak hitzaldia eman zuen. Hitzaldian HIESa duten Afrikako umeen egoera azaldu zuen.





Mikologiaren gaineko Argazki Lehiaketaren sari-banaketa abenduaren 28an egingo da

Urrusti Lezamako mikologia elkarteak Argazki Lehiaketa antolatu du aurten lehenengo aldiz. Lehiaketak gaztetxoek zein helduek mendiaz eta horrek eskaintzen dizkigun aukerez gozatzea du helburu. Txapelketaren gaia "Mikologia" da, eta lanak aurkezteko epea abenduaren 15ean amaitu zen.




Sari banaketa abenduaren 28an egingo dute, arratsaldeko 8etan, Lezamako Kultur Aretoan. Urrusti elkarteak 4 sari emango dituzte: 1. saria, argazki-makina digitala; 2. saria, 2Gbko Mp3 erreproduzigailua; 3. saria, perretxikotarako otzara eta labana; eta 4. saria, perretxikotarako otzara eta labana. Partehartzaileen argazkiak abenduaren 26tik 28ra bitartean jarriko di-

tuzte ikusgai Kultur Aretoan.

ETBko saio baten protagonistak

Urrusti elkarteak bost kidek ETBko "Udazken Loreak" saioan hartu dute parte. Saioa Orio produkzioak ekoiztu du eta ikusleei perretxiko mundua era atseginean hurbiltzea du helburu. "Udazken Loreak" programak 13 atal ditu eta Urrustikoak protagonistak izan dira atal horietako batean. Lezamarrek perretxikoak hartzeko teknika azaldu dute eta hainbat aholku ere eman dituzte.

Beste alde batetik, Urrusti elkarteak mikologiari buruzko hitzaldiak antolatu ditu datorren urtean Txorierriko Mankomunitatearekin batera. Horrezaz gainera, irteerak ere egingo dituzte.



IRUSTA TABERNA

Urte barri
administratibon berria

Irakurketa 2024
Tel: 94 459 361 77



Marino L. Padi

FOTERI TABERNA






Arantza Arriola
Tel: 94 459 361 77

Marino L. Padi



Arantza Arriola
Tel: 94 459 361 77

LARRABETZU
BIZKALA



cianoplan s.a.

Libarte Hiribidea 101.171
48100 Zumaia
Tel: 94 459 361 77
info@cyanoplan.com

global printers

- Kopiatuak eta planak argiak
- Kartakak kolore eta zila
- Digitalizazio eta berrargazte, autorizazioa eta argazkia.
- Beldaragatik beldaragatik
- Eza desberdintza beldaragatik.
- Plakak argiak.
- Eza beldaragatik.

Ia 400 abeslarik hartuko dute parte Txorierriko Gabon Kantan Jaialdian

Aurreko urteetan bezala, Derioko Ipar-Alde abesbatzak Txorierriko Gabon Kantan Jaialdia antolatu du. Jaialdiak XXII. edizioa beteko du aurten, eta bertan Bizkaitik eta Arabatik etorritako 16 abesbatzek parte hartuko dute; 399 abeslarik, orotara. Jaialdiak Txorierriko herri guztiak bisitatu-ko ditu. Dagoeneko Sondikan egin dute eta datozen hitzorduak hauek ditugu:

Abenduaren 22an (zapatua), Larrabetzun
19:30: Andra Mari elizan. Abesbatzak: Etxebarriko Donebeste Abesbatza, Txuma Olagüe Abesbatza (Sondika) eta Schola Cantorum (Barakaldo).

Abenduaren 23an (domeka), Lezaman
13:00: Andra Mari elizan. Abesbatzak: Zigor Korala (Barakaldo), Zamudioko Kamara Korala eta Ekidazu Abesbatza (Lezama).

Abenduaren 29an (zapatua), Zamudion
20:30: San Martin elizan. Abesbatzak: Bar-


tolomé Ercilla Abesbatza (Durango), Gaztelumendi Abesbatza (Larrabetzu) eta Ipar-Alde Abesbatza (Derio).

Abenduaren 30ean (domeka), Loiu
12:30: San Pedro elizan. Abesbatzak: Txori Kantari Ahots Zuriak (Bilbo), Itsalde Abesbatza (Zuaza-Okendo) eta Bengolea Abesbatza (Burtzeña-Barakaldo).

Urtarrilaren 4an (barikua), Derion
19:30: San Isidro elizan. Abesbatzak: Bartolomé Ercilla (Durango), Itsalde Abesbatza (Zuaza-Okendo), Zamudioko Kamara Korala, Gaztelumendi Abesbatza (Larrabetzu), Bengolea Abesbatza (Burtzeña-Barakaldo), Escolania Ntra. Sra. de Begoña (Bilbo), Gaudeamus Korala (Gernika) eta Zigor Korala (Barakaldo).

Urtarrilaren 5ean (zapatua), Derion
19:30: San Isidro elizan. Abesbatzak: Txori Kantari Ahots Zuriak (Bilbo), Txuma Olagüe Abesbatza (Sondika), Mendibiarte Abesbatza (Erandio), Etxebarriko Donebeste Abesbatza, Schola Cantorum (Barakaldo), Ekidazu Abesbatza (Lezama) eta Ipar-Alde Abesbatza (Derio).

Izarra, Azurmendirentzat



Michelin gidak izar bat eman dio Larrabetzuko Azurmendi jatetxeari. Eneko Atxa Azurmendi jatetxearen buru da eta izar horrek gazteak urte bian egindako lana saritzen du. Atxa autore-sukaldaritzako etorkizuneko sukaldarietarikoa da.

Txorierriko enpresak Google Earth-en bidez topa daitezke

Behargintza Txorierri hainbat erreminta jarri ditu eskura www.txorierri.es webgunean. Horiek Txorierriko enpresen topatzea errazagoa izatea dute helburu.

Erreminten artean, enpresen bilatzailea, industriguneetako planoak eta enpresak Google Earth-en ikusten ahalbidetzen duen artxibo bat daude. Google Earth programak planetako 3D irudiak ikusteko aukera ematen digu eta horretarako, sateliteko irudiak, mapak eta Googleren bilatzailea uztartzen ditu.

Horrezaz gainera, enpresa bakoitzaren fitxategian horren koordinadak azaldu dituzte, GPS dispositiboetan sartu ahal izateko. Erreminta horien birtartez, poligonoak eta enpresen kokaleku zehatza jakingo dugu.



Argazkia: Sondika Goiri Taldea



Etxebizitzak Zamudioko erdigunean



1, 2, 3 eta 4 logela dituzten etxebizitzak • Duplex
Merkataritzako lokalak • Garaieak eta trastelekuak • Zamudioko erdigunean



• Zabalduak: 19.900 m², 10.000 m²
• 100 garaje eta 100 trasteleku
• 100.000 m² inguruko eremu bat

Enkarguak

BBVA



94 452 31 76
94 679 31 42

SAETXE
urbanizaciones

“Morroi jatorrak gara!”

Tango ospetsu baten arabera, 20 urte ez da ezer, baina, antza denez, Golden Apple Quartet donostiar laukotea ez dator bat iritzi horrekin, dagoeneko hamarkada bi baitaramatzate taula gainean Loyola Garmendiak, Eduardo Errodonzorok, Manuel Romanok eta Enrique Ochoak. Sondikako Kultur Etxean 'Los golden en serio' azken lana aurkeztu zuten eta jendea pozik irten zen. Hala adierazi digu, behintzat, Enriquek, talde osoaren izenean.

Testua: Gaizka Eguskiza

Zelan Sondikan?

Entzuleen erantzuna ikusita, oso ondo, gure ustez. Izan ere, saioa amaitu ostean, entzuleak zutunik paratu ziren, eta ez alde egiteko, e! (kar, kar).

Los golden en serio du izena zuen azken ikuskizunak. Zuen ironia hutsa da, ezta?

Gurea ahots-musika giroan kokatutako umorea da. Eta ironia bere alderdi bat da. Haren bidez jendeak ondo pasatzea eta gu atseginak izatea nahi dugu. Oso esker oneko lana da gurea (psikologoaren era ez dugu joan beharrik!) eta autoestimu itzela dugu (kar, kar).

20 urte daramatzazue taula gainean. Zer dago atzera begiratzen duzuenean?

Frakdun kobratzailea eta ile mordoa alfonbran... (Zenbat ile genuen, ene Jainko maita!).

Talde kide bat alde batera utzita, zer aldatu da laukotean?

Goldenek bere estilo propioari eutsi dio 21 urte pasa eta gero. Manu gurekin berriro egotea ez da aparteko nobedadea. Izan ere, taldearen sortzaileetako bat izan zen

“Sondikako ikusleak zutunik paratu ziren, baina ez alde egiteko, e!”

1986an. Hortaz, aldaketa gutxi izan dugu taldean. Bai, ordea, arte mailan: Estatu osoan zehar plazaratutako azken ikuskizuna dugu horren adibide.

Bi bitxikeria argitzea nahiko nuke: bata, izena. Nondik dator?

Horixe galdetzen digun 12.865. pertsona zara. Jatorria bitxia da: omenaldia egin nahi izan genion Amerikako talde beltz bati. Golden Gate Quartet zen

haren izena, eta izugarri miresten genituen. Beraz, hemen zegoen “golden” bakarra sagarra zela pentsatu genuen eta, ondorioz, taldeari Golden apple quartet izena (hau da, Golden sagarraren laukotea) jartzea erabaki genuen.

Bigarrena zera da: zuen kantarik famatuena *El menu* da. Jendeak behin eta berriro eskatzea gustatzen zaizue ala dagoeneko nekatuta zaudete?

Jendeak eskatzeak ez gaitu inondik inora gogaitzen. Hala ere, penagarria da, gure ustez, jendea antzokira nekez joatea, artistek hantxe erakusten baitute euren benetako maila. Guk 21 urte daramatzagu lan honetatik bizitzen, eta argi dago ibilbide luze horretan *El menu* kanta baino zerbait gehiago egin dugula. Aldizkari honen

bidez, telebista neurritz ikusteko gonbita egin nahi diogu jendeari. Era

berean, antzokira joateko eskatzen dugu, istorioa gezurra izan arren, ikuskizuna benetakoa baita.

Azken bolada hone-



“Umeei eta familiari
zuzendutako kalitatezko
musika-antzerkiaren
aldeko apustua
egin dugu”

tan umeentzako ikuskizunak egin dituzue...

Duela bi urte hasi ginen jardunbide berri horrekin. Orain arte ikuskizun bi jarri ditugu martxan, *Galipotx* eta *Karabas*. Euskadin antzetzu ditugu eta orain Estatura eramango ditugu. Jarduera hori dela medio, aukera bat behar duen talentu handiko gazteei lagundu nahi diegu. Gure iritziz, hori egin beharreko zerbait, erakundeetan inork ez duelako egiten. Beraz, kalitatezko musika-antzerkiaren

aldeko apustua egitea erabaki dugu, umeei zein familiei zuzenduta. Ekimen horrek haurrei (eta gurasoei, bide batez) antzerkia deskubritzen lagunduko die. Hala, emozionatu egingo dira eta etorkizunari begira, kalitatezko ikusleak izango dira.

Haurrentzako ikuskizunak, zinemarako musika, iragarkiak... Denetarik egiten duzue, baina zein duzue nahien?

Berdin digu. Profesionaltasun osoz eta gogo handiz egiten dugu dena, horixe baita lanaren kalitatearen gakoa.

Kazetarioi etiketak jartzea gustatzen zaigu. Zein da Goldenena?

Morroi jatorrak gara!

Zer duzue esku artean etorkizunari begira?

Familiarekin turroia jango dugu, eta espero dugu Olentzerok irribarreak eta *buen rollo* guztioi ekartzea, gainerakoak ez baitu merezi. Urte berri on!




Hästens 
 Cuccio antielettrico
 chiedi



ARTEAGA koltxoi-denda

Derivis Sempino • 94 454 91 47 • DERID



35 urte bete arte itxarongo duzu independente izateko?

Ez al duzu ikusirik hori ez dela betek?
 Ez al duzu gogoratuta aldi gutxiago
 gogoratu zenuen orain
 zuretzat gogoratu zenuen?



EITB

TEKNIKARI

2019ko irailaren 15etik 2020ko martxoaren 15era bitarteko irailaren 15eko astearteko 17.00etan

2019ko irailaren 15etik 2020ko martxoaren 15era bitarteko irailaren 15eko astearteko 17.00etan

HEGOKIAK ZEROLAN

HEGOKIA <i>Hezetasunak: 20 urte (2-40 urte)</i> ETIKETAKIN DA ZEROLAN <i>Hezetasunak: 20 urte (2-40 urte)</i> <i>Hezetasunak: 20 urte (2-40 urte)</i>	HEGOKIAK ZEROLAN • <i>Hezetasunak: 20 urte (2-40 urte)</i> • <i>Hezetasunak: 20 urte (2-40 urte)</i> • <i>Hezetasunak: 20 urte (2-40 urte)</i> HEGOKIAK ZEROLAN • <i>Hezetasunak: 20 urte (2-40 urte)</i> • <i>Hezetasunak: 20 urte (2-40 urte)</i>
--	--

Piedra en mano, gazteak rockari eusten

“Ez gara birtuosoak, baina jotzeko gogo handia dugu”

Txorierrin gazte talde nahikotxo dabil musika egin gurean. Ez dira gehiegi ikusten, baina hor daude. Askok Derioko Larrabarri baserriko sotoetan aurkitu dute ezinbestekoa duten entseatzeko lokala. Horietako banda bat elkarrizketatu dugu. Bost gazte, 16 eta 18 urte bitartekoak, denak derioztarrak, edo erdi derioztarrak. Ez dira ados jartzen ea punk hutsa edo punk-rock den euren egiten dutena, baina gogoia ez zaie falta. Euskara jakin arren, abesti gehienak gaztelaniaz kantatzen dituzte. Piedra en mano dute izena.

Testua: Bestorrene / Argazkia: taldearena

Nortzuk zarete eta nola hasi zarete?

Xabier eta Iker gitarrek, Julen baxuak, Arkaitz bateriak eta Gorka ahotsak osatzen dugu taldea. Xabier hasi zen ideiarekin, eta apurka-apurka jendea erakartzen joan da.

Zer jotzen duzue?

Orain arte bertsioak egiten ibili gara: Lehendakaris muertos, Eskorbuto, Los muertos de Cristo, Escuela de odio, Envidia cochina, Kortatu. Akordeak internetetik jaisten ditugu, eta ez baditugu aurkitzen, asmatu egiten ditugu. Orain hasi gara gure

musika egiten, letra batzuk ditugu.

Euskeraz, gaztelaniaz?

Orain arteko abesti guztiak gaztelaniaz dira, euskaraz dugun bat izan ezik, Kortaturena.

Non ikasi duzue jotzen?

Batzuek bagenekien lehendik gitarra jotzen, akademietan ikasita. Beste batzuk orain hasi gara ikasten.

Asko entseatzen duzue?

Lehen ez geneukan lekurik, Udalari eskatu eta Larrabarri baserria utzi digute. Bertako

sotoan 12 talde inguruk jotzen dugu astero. Nahiz eta guztiok ez dugun elkar ezagutzen Txorierrikoak gara. Uste dugu denok rock inguruan gabiltzala, raperoren bat badago ere. Guk astean 4 ordu dugu jotzeko. Anplifikadoreak, mikrofonoak, bateria, ordenagailua... bertan daude, eta, nahiz eta guk eduki, bertakoak erabiltzen ditugu.

Noizko publiko aurrean?

Gugatik oraintxe bertan, hartu instrumentuak eta bagoaz. Gogo handiak ditugu.


Zeintzuk dira zuen talde erreferentzialak?

Bakoitzak bere gustuak ditu, baina hauek izan daitezke: Sin dios, Los muertos de Cristo, Escuela de odio, Eskorbuto, Lehendakaris muertos.

Definitu zeuen burua.

Betikoa esango dugu. Gure instrumentuak oso txarrak dira, onek asko balio dute eta, ez gara birtuosoak, ez dakigu ondo solfeo... baina jotzeko gogorik? Handia. Baten batek nahi badu gurekin kontaktatu, piedra_en_mano@hotmail.com da gure e-maila.

“Orain hasi gara gure musika egiten, letra batzuk ditugu”



Solidarioak diranak badagoz, musika dabenak, tokiko ohiturak isladatzen dabezanak, etxeko postontzian jasoten doguzanak eta korreo elektronikora ailegatzen jakuzanak. Guztiek dabe helburu bera: Zorionak eta Urte Berri On opatzea senide eta lagunei.

1843. urtean Henry Cole ingelesak enkargu bat egin eutsan Jon Horsley marrazkilaria: lagunei asmo onak eta zorionak opatzeko erabiltzen zituan postaletan esaldi bat gehitzea. Eta Horsley-k hau idatzi eban: "Merry Christmas and Happy New Year". Hori Gabonetako postalen sorrera komertziala izan zala esan daiteke. Hurrengo urtean Victoria erreginaren gortea Gabonetako postalak erabilten hasi zan Gabonak zoriontzeko. Eta ohiturea munduko beste txoko batzuetara zabaldu zan.

Inprimatze-teknikak izugarrizko aldaketea izan dau urteetan zehar, eta horregaz batera postaletan agertzen diran irudiak be aldatuten joan dira: loreak, iratxoak, umorezko binetak, belikoak, erlijiosoak...

Gabonetako postalek interes haundia piztu dabe hasiera-hasieratik. Maria erreginak, esate baterako, horreetako asko bildu zituan. Bilduma Museo Britainiarrean ikusgai dago gaur egun. Beste alde batetik, 1840.

Opa deutsuegu...





Christenroß und
neuen Jahres
wünsche
wünscht
euch
der Herr
von...

Alte

urtetik 1890. urtera arteko garaia inprimatzearen urrezko arotzat jotzen da, eta garai horretako aleak oso preziatuak dira enkan-teetan dabilzanen artean. Halan, 2005. urteko abenduan bildumazale batek 9.000 libratan (12. 5045 euro) erosi eban Horsley-k egindako lehenengo Gabonetako postaletariko bat.














Goian, Larabetzuko 9 urteko Jon Zuberok egindako postala. Behean, Sondikako Gabonetako Postalen Lehiaketaren irabazlea: Maider del Cid



zorionak eta urte berri on!



**BIZKAIKO
NEKAZARIEN
KOOPERATIBA
ETA ELKARTEAK**



LORRA, S. COOP.

Barru Carnaliza, nº23
48195 LEZAMA (BIZKAIA)
Tel. 94 455 50 53 / Fax. 94 455 52 45
e-mail: lorra@lorra-coop.net

www.lorra-coop.net

Derio

● Abenduaren 22an, zapatua

11:00-14:00 eta 16:00-18:00: Graffiti eta Break Dance lehiaketa, tren geltokiaren atzeko aldean, Arte Urbano taldearen eskutik.

17:00 eta 20:30: *Encantada* filma, Gurea Aretoan.

● Abenduaren 23an, domeka

10:00: Taekwondo Punset erakustaldia, kiroldegian, Doyan taldeak antolatuta.

11:00-18:00: Aeromodelismo tailerra, frontoian, Aeromodelismo SUBYKE klubak antolatuta. Umeentzako ekintzak, hegaldia indoor...

17:00 eta 19:30: *Encantada* filma, Gurea Aretoan.

● Abenduaren 24an, astelehena

10:00: Familia osoari zuzendutako hainbat jardura eta kirol jokoak, kiroldegian.

17:00: Olentzero Errekalde parkera ailegatu da.

● Abenduaren 28tik urtarrilaren 11ra (domeka eta jaiegunetan izan ezik)

11:00-14:00 eta 16:00-20:00: "Grabatua eta Sinbologia Euskalerrian" erakusketa, oinezkoentzako kalean, Txoriberri taldeak antolatuta.

● Abenduaren 28an, barikua

18:00: Dantza-omenaldia/Jai nagusia, Nagusien Etxean.

18:30-21:30: Gaztaina Eguna, oinezkoentza-

ko kalean. Sagardo dastaketa, bertsolariak eta trikitixa.

19:00: Hiruko areto-futbola (gizonak), kiroldegian, Pozgarri FSTk antolatuta.

20:30: "Umorean Gaua", Gurea Aretoan. Gurutze Beitia, Gemma Martinez eta Maribel Sala. Sarrera: 3 euro.

● Abenduaren 29an, zapatua

16:00: Xakeko Herriko Opena kiroldegian, Xake taldeak antolatuta.

17:00: eta 19:30: *La brújula dorada* filma, Gurea Aretoan.

20:30: Euskadi-Katalunia partida ikustera irteera (San Mamesen). Informazioa, kiroldegian.

● Abenduaren 30ean, domeka

10:00: VI. Aldi Bereko Xakea kiroldegian, Xake taldeak antolatuta.

17:00: *Txuribeltz umeentzako* antzezlan, Gurea Aretoan.

17:30: *La brújula dorada* filma, Gurea Aretoan.

20:00: *El día del padre* antzezlan ikustera irteera (Arriaga Antzokian). Prezioa: 10 euro; sarrerak, udaletxean.

● Abenduaren 31n, astelehena

10:00: Familia osoari zuzendutako hainbat jardura eta kirol jokoak, kiroldegian.

● Urtarrilaren 2an, eguaztena

16:00: "Ezagutu eskupilota. Teknika eta praktika I" ekimena frontoian, Atxiki PTK antolatuta.

● Urtarrilaren 4an, barikua

17:00-20:00: Trueke Azoka, Eskulan Taile-



Gurutze Beitia

rraren tokian (Goiko kalean). Jostailuak, musika, osagarriak... Santzoka taldeak antolatuta.

19:00: 'Txori Herri' XXII. Gabon-kanten Festibala elizan, Ipar-alde abesbatzak antolatuta.

● Urtarrilaren 5ean, zapatua

10:00: Eskola-futbitoa eta F.7 kiroldegian eta futbol-zelaian, Arteaga FSTk antolatuta.

19:00: 'Txori Herri' XXII. Gabon-kanten Festibala elizan, Ipar-alde abesbatzak antolatuta.

17:00-20:00: Trueke Azoka, Eskulan Taile-rraren tokian (Goiko kalean). Jostailuak, musika, osagarriak... Santzoka taldeak antolatuta.

18:00: Erregeen kabalgata, elizatik udaletxera.

● Urtarrilaren 6ra arte

Derioko IV. Argazki Lehiaketaren lanen erakusketa Larrabarri baserrian, DATk antolatuta.

● Urtarrilaren 10ean, eguena

18:00: "Ezagutu eskupilota. Teknika eta praktika I" ekimena kiroldegiko Kultura Gelan, Atxiki PTK antolatuta.

● Urtarrilaren 12an, zapatua

19:00: *Doña Rosita la soltera* antzezlan, Gurea Aretoan, Sutondoan taldearen eskutik.

● Urtarrilaren 14tik 31ra

"Elkartasunean mendia bide" erakusketa kiroldegian, Untza mendi taldeak antolatuta. Urtarrilaren 24an, 19:30ean, hitzaldia emango du Txema Camarak.

● Urtarrilaren 18ra arte

"Sahararen aldeko Karabana" ekimena. Produktu hauek batuko dira: arroza, dilistak, azukrea, atun oliotan eta konpresak. Tokiak: udaletxea, gaztelekua eta Nagusien Etxea.





Desenburuen Aldekoa
Lescana S. Coop.

Arreik 2.300
m² eraikitako
14 lokal dituen
1.500 m² eremuaren barnean
(Lescana 10)

Partida
antzerkiak



URTARRAK
TRABEIRA

Arreik 2.300
m² eraikitako
14 lokal dituen
1.500 m² eremuaren barnean
(Lescana 10)

ARANTZA AMONDAKAIN LASA
CONSTRUCTORA S.L.

Telefonoa: 944 55 11 22
E-maila: amondakain@arantza-lasa.com

Telefonoa: 944 55 20 02
E-maila: amondakain@arantza-lasa.com

Elis Larramendi
L. E. L. & D.
Larramendi

Telefonoa: 944 55 11 22
E-maila: amondakain@arantza-lasa.com

Telefonoa: 944 55 20 02
E-maila: amondakain@arantza-lasa.com

BASKOLAN
construcciones

**Partekatu, telefonatu,
berrazartu eta gurekin
konpartitu eta iragaitzak agindu**

1. BASKOLAN S.L. BERRAZARTU
BERRAZARTU S.L.
BERRAZARTU S.L. BERRAZARTU S.L.
BERRAZARTU S.L. BERRAZARTU S.L.

Telefonoa: 944 55 11 22
E-maila: amondakain@arantza-lasa.com

Telefonoa: 944 55 20 02
E-maila: amondakain@arantza-lasa.com

OPTICA MODERNA

Enfite, 4 - 48100 DERIO - Telefonoa 94 454 37 93

-Fiskala
-Expansioa
-Berrazartu

Aholkularitza

Lagunkor

Arretuak, 99
BERRAZARTU S.L. BERRAZARTU S.L.
BERRAZARTU S.L. BERRAZARTU S.L.

ALBERTO

Telefonoa: 944 55 11 22
E-maila: amondakain@arantza-lasa.com

ESTILISTA EVA ARDINES

Telefonoa: 944 55 11 22
E-maila: amondakain@arantza-lasa.com

Auxi

Telefonoa: 944 55 11 22
E-maila: amondakain@arantza-lasa.com

ATARRABI

Telefonoa: 944 55 11 22
E-maila: amondakain@arantza-lasa.com

ATARRABI

Telefonoa: 944 55 11 22
E-maila: amondakain@arantza-lasa.com

AM

**Partekatu
7
Berrazartu**

- Berrazartu eta gurekin
- Berrazartu eta gurekin
- Berrazartu eta gurekin
- Berrazartu eta gurekin

Telefonoa: 944 55 11 22
E-maila: amondakain@arantza-lasa.com

Telefonoa: 944 55 20 02
E-maila: amondakain@arantza-lasa.com

www.amondakain.com

ATARRABI

Telefonoa: 944 55 11 22
E-maila: amondakain@arantza-lasa.com

COKOTORAN

Partekatu eta gurekin

Telefonoa: 944 55 11 22
E-maila: amondakain@arantza-lasa.com

ATARRABI

Telefonoa: 944 55 11 22
E-maila: amondakain@arantza-lasa.com

● **Abenduaren 22an, zapatua**

19:00: *Gabon Kantuk* umeentzako antzerkiera irteera (Sondikako Kultur Etxean).

The horror bus filma ikustera irteera (10 urtetik 14 urtera bitarteko gaztetxoentzat).

● **Abenduaren 24an, barikua**

10:00: Plater-tiro saioa, Teknologia Parkeko tiro-zelaian. Txorierri Ehiza eta Arrantza Elkartek antolatuta.

09:00: Olentzeroren kalejira baserriz baserriri, eta arratsaldean kalejira, herritik zehar.

● **Abenduaren 26tik 30era**

16:30-21:00: Gabonetako haur-parkera, kiroldegian.

● **Abenduaren 28an, barikua**

20:00: 'Olentzero-Gabonak' IX. Lehiaketaren sari banatzea, kiroldegian. Ekitaldian Elvi sabeliztuna izango da. Lagatzu euskaraz elkartek antolatuta.

● **Abenduaren 29an, zapatua**

18:30 (errepide nagusiko autobus-geralekutik): Euskadi-Katalunia partida ikustera (San Mamesen).

'Txori Herri' XXII. Gabon Kanten Festibala, San Martin elizan.

● **Abenduaren 31n, astelehena**

Urkiolara irteera, Arroeta mendi taldeak antolatuta.

Zamudio



10:00: Plater-tiro saioa, Teknologia Parkeko tiro-zelaian. Txorierri Ehiza eta Arrantza Elkartek antolatuta.

01:00-05:00: Urte amaierako kotiloia, Adintsuen Etxean. Musika, dantza...

● **Urtarrilaren 2an, eguaztena**

09:00: 09:30 (Zamarripa plazako autobus-geralekutik): Gueñeseko karting-era irteera (12 urtetik gorako neska-mutilentzat).

Izena emateko azken eguna: abenduaren 28a.

Piccolo eta Saxo filma ikustera irteera (10 urtera arteko umeentzat). Izena emateko azken eguna: abenduaren 28a.

● **Urtarrilaren 3an, eguena**

09:30 (Zamarripa plazako autobus-geralekutik): Gabonetako haur-parkera irteera (BECn).

Loiu

● **Abenduaren 22an, zapatua**

18:20 (Zabaloetxetik) eta 18:35 (Larrondotik): Gabon Kantuk ikuskizuna ikustera (Sondikako Kultura Etxean). 5 urtetik 12 urtera bitartekoentzako umeentzat.

● **Abenduaren 24an, astelehena**

17:00: Olentzerok Klaratarren komentu eta frontoiaren arteko ibilbidea egingo du. Frontoian Gabon kanta abestu eta opariak banatuko dira.

● **Abenduaren 26an, eguaztena**

11:00-13:00: Plastilina zko jaiotza eta malabar tailerra, Ludotekan.

17:00: 'Loiuko Udala' Gabonetako postalen XIV. Lehiaketaren sari banaketa.

18:00: Fotonobela tailerra, liburutegian.

● **Abenduaren 26tik urtarrilaren 11ra**

Liburu berrien erakusketa, liburutegian.



● **Abenduaren 27tik urtarrilaren 4ra**

'Loiuko Udala' Gabonetako postalen XIV. Lehiaketaren lanen erakusketa, Kultura Etxean.

● **Abenduaren 27an, eguena**

9:45 (Larrondotik) eta 10:00 (Loiutik): *Betizitu eta urrezko zintzarria* filma ikustera irteera (Derioko Gurea Aretan). 4 urtetik 12 urtera bitarteko umeentzat.

18:00: Kidam Magoa, herriko kaleetan.

18:00-19:30: Txokolatada eta barrakak doan 12 urtetik beherakoentzat.

18:00-21:00: Hip-hop tailerra, Gaztegunean.

● **Abenduaren 28an, barikua**

9:45 (Larrondotik) eta 10:00 (Zabaloetxetik): Gabonetako Umeen Parkera irteera.

17:00-21:00: Gazteentzako parkea, Zabaloetxeko frontoian: goming-a, boxeoko ringa...

18:00: *Zuk-zuk jaunaren alfabetoa*, Bernardo Atxagaren liburuan oinarritutako antzezlan, liburutegian.

19:30: Udal tailerreko trikitixa emanaldia, Kultura Etxeko gimnasioan.

● **Abenduaren 30ean, domeka**

12:30: 'Txori Herri' XXII. Gabon-kanten Festibala, San Pedro elizan.

● **Urtarrilaren 2an, eguaztena**

12:00-14:00 eta 17:00-20:00: Gabonetako Umeen Parkea, Zabaloetxeko frontoian.

● **Urtarrilaren 3an, eguena**

12:00-14:00 eta 17:00-20:00: Gabonetako Umeen Parkea, Zabaloetxeko frontoian.

● **Urtarrilaren 4an, barikua**


11:00-13:00: Gabonetako zuhaitza eta Komiki tailerra, Ludotekan.

18:00-19:30: Umeentzako IV. Azoka Txikia, Kultura Aretoko gimnasialekuan.

20:00: Cum Jubilo Euskal Herriko Unibertsitateko taldeko abeslari ohien eta euren seme-alaben emanaldia, San Pedro elizan.

● **Urtarrilaren 21etik 25era**

8:30-13:30 (udaletxean) eta 16:30-20:30 (liburutegian) "Sahararen aldeko IV. Karabana: piztu itxaropena" ekimena. Produktu hauek batuko dira: arroza, dilis-tak, azukrea eta hegaluzea oliotan.





CAFETERIA GENTURION

*Españolarenak:
gozari eta pintxoak*

LARRABETZUKO LARRABETZU ETXEA, 6
Telefonoa 945 4502 10-40 - Zazpidero




Remirez Instalaciones S.L.

ESPEKULO, PINTURATZAILERIA,
BOSKINAK, BARRIOKUTAK



Bisitatu gure bloga

www.blogari.net/tximintx



● **Abenduaren 22an, zapatua**

17:30 eta 19:00: *Gabon Kantuk* umeentzako antzezlan, Kultura Etxean. Deabru Beltzak Teatro taldearen eskutik.

● **Abenduaren 23an, domeka**

18:00: *Iratxoen erregea* filma, Kultura Etxean.

● **Abenduaren 24tik 31ra**

11:00-14:00: Gabonetako programa Ludoteka In eta IIn: panpinak, apaingarriak, sukaldaritza lantegia... (Ludoteka I 13:00a arte egongo da zabalik).

● **Abenduaren 24tik urtarrilaren 4ra**

17:00-21:00 (astegunetan) eta 16:30-21:00 (asteburuetan): Gabonetako programa, Gaztetxean: tailerrak, txapelketak...

● **Abenduaren 24an, astelehena**

17:00: Olentzero eta Belen biziduna, Udaletxean. Txuma Olagüe Abesbatzak, Gorondagane Gurasoen Elkarteak, Gorantzailleak dantza taldeak, Ipar-Elaiak txistu taldeak eta Udalak antolatuta.

● **Abenduaren 26an, eguaztena**

15:30: Gabonetako haur-parkera irteera (BECn), (Ludoteka I, II eta Gaztetxea).

● **Abenduaren 27an, eguena**

17:30: *Kataklow*n umeentzako antzezlan, Kultura Etxean. Sambhu Teatro taldearen eskutik.

● **Abenduaren 28an, barikua**

17:30: Sun magoa, Kultura Etxean.

● **Abenduaren 29an, zapatua**

12:00-14:00 eta 16:00-19:00: Txiki Eguna, Goronda Beko kiroldegian. Haur eta gazte-parkea, lantegiak... Euskadi-Katalunia partida ikustera irteera (San Mamesen).

● **Abenduaren 30ean, domeka**

12:00-14:00 eta 16:00-19:00: Txiki Eguna, Goronda Beko kiroldegian. Haur eta gazte-

Sondika

parkea, lantegiak...

● **Urtarrilaren 2an, eguaztena**

15:30: Zornotzako lorategi botanikora irteera (Ludoteka I).

15:30: Gasteizko Izotz Jauregira irteera (Ludoteka II eta Gaztetxea).

● **Urtarrilaren 3an, eguena**

16:00: Camelot Park-era irteera (Getxon), (Ludoteka I).

18:10: *Pedro y el lobo* umeentzako operara irteera (Arriaga Antzokian), (Ludoteka II).

● **Urtarrilaren 4an, barikua**

15:30: Zornotzako Lorategi Botanikora irteera (Ludoteka II).

18:10: *Pedro y el lobo* umeentzako operara



irteera (Arriaga Antzokian), (Ludoteka II).

● **Urtarrilaren 11ra arte**

'Sondikako Udala' Gabonetako Postal Lehiaketaren lanen erakusketa, Erakusketa Aretoa.



*Kataklow*n umeentzako antzezlan

Lezama



● **Abenduaren 22an, zapatua**

19:00: *Gabon Kantuk* umeentzako antzerkira irteera (Sondikako Kultur Etxean).

● **Abenduaren 23an, domeka**

13:00: 'Txori Herri' XXII. Gabon-kanten Festibala, Lezamako Andra Mari elizan.

● **Abenduaren 24an, astelehena**

17:30: Olentzeroren jaia, udaletxeko plazan. Dantzak, gozokiak, kalejira, opariak... Gurutze dantza taldeak, Zo-

rrizketan euskara elkarteak, Gurasoen Elkarteak eta Udalak antolatuta.

● **Abenduaren 26an, eguaztena**

10:00 (eskolatik): Olentzeroren etxera irteera (Mungian). 6 urtetik 12 urtera bitarteko umeentzat.

● **Abenduaren 27an, eguena**

10:00 (eskolatik): *Betizu eta urrezko zintzarria* filma ikustera irteera (Derioko Gurea Aretoa). 6 urtetik 12 urtera bitarteko umeentzat.

● **Abenduaren 28an, barikua**

10:00: Aita Guria euskal baleontzira irteera (Bermeon). 6 urtetik 12 urtera bitarteko umeentzat.

● **Abenduaren 29an, zapatua**

Euskadi-Katalunia partida ikustera irteera (San Mamesen).

● **Urtarrilaren 2an, eguaztena**

11:30-13:30 eta 16:30-20:30: Gabonetako haur-parkea, frontoian.


● **Urtarrilaren 3an, eguena**

11:30-13:30 eta 16:30-20:30: Gabonetako

haurren parkea, frontoian.

● **Urtarrilaren 4an, barikua**


11:00-14:00: Gabonetako haur-parkea, frontoian.



Hori Baik antolatutako ekitaldiak

- **Abenduaren 22an, zapatua**
Olentzeroren bila.
- **Abenduaren 23an, domeka**
Liburu eta disko azoka. Egun osoan zehar liburu eta diskoen aurkezpenak.
- **Abenduaren 24a, astelehena**
Olentzero, Larrabetzun.
- **Abenduaren 25an, martitzena**
19:00: Bertso saioa: Amets Arza-llus, Aitor Mendiluze, Xabier Silveira eta Fredi Paia.
- **Abenduaren 27an, eguena**
Venezuelari buruzko hitzaldia.
- **Abenduaren 29an, zapatua**
Larrabetzu auzoz- auzo ekitaldia.
- **Abenduaren 31an, astelehena**
Kotilloia. Zine gaua.
- **Urtarrilaren 2an, eguaztena**
Filma, Hori Baien.
- **Urtarrilaren 3an, eguena**
21:00: *Katamalo* ikuskizuna.
- **Urtarrilaren 5ean, zapatua**
Keren bakarlaria.
- **Urtarrilaren 6an, domeka**
Umeentzako papiroflexia tailerra eta txokolatada.

Xabier Silveira



Kuko, Truko eta Bolenwaider oporretan pailazoen ikuskizuna



Larrabetzu

- **Abenduaren 22an, zapatua**
19:00: *Sorginak* kaleko antzezlan, Andra Mari kalean. Goloka antzerki taldearen eskutik.
- **Abenduaren 24tik urtarrilaren 4ra**
Gabonetako programa, ludotekan: taile-rrak, kankak, ipuinak...
- **Abenduaren 26an, eguaztena**
16:00-20:00: Puzgarriak, kiroldegian.
- **Abenduaren 27an, eguena**
Betizu eta urrezko zintzarria filma ikustera irteera.
- **Abenduaren 28an, barikua**
Donostiako Izotz Jauregiara irteera (6 urte-tik 13 urtera bitarteko haurrentzat).
18:00: *Beltzitina* antzezlan, eskolako gim-nasioan. Panta Rhei taldearen eskutik.
- **Abenduaren 29an, zapatua**
18:30 (futbol-zelaiaren aurrean): Euskadi-Katalunia partida ikustera irteera (San Mamesen).

- **Urtarrilaren 2an, eguaztena**
18:00: *Kuko, Truko eta Bolenwaider oporre-tan* pailazoen ikuskizuna, eskolako gim-nasioan.
- **Urtarrilaren 3an, eguena**
Gabonetako haur-parkera irteera (BECn).
- **Urtarrilaren 4an, barikua**
18:00: "Luma Gorri" haur berbena, kirol-degian. Txorromorro taldearen eskutik.
- **Urtarrilaren 5ean, zapatua**
18:00: Erregeen festa Urdabai bikoteare-kin, Gure Etxean.

Sorginak kaleko antzezlan



Larradent Poliklinika

AMATELUTU LARRADENT, S.L. - C/AL-
FARO, 10 - 48940 LARRADENT (Bizkaia)
Tel: 945 99 99 99
E-mail: info@larradent.es



- ✓ Fisioterapia
- ✓ Podoterapia
- ✓ Odontologia
- ✓ Hamaileta



antenas VIZcaya

TELECOMUNICACIONES 4109-K HOMOLOGATUTAKO ENPRESA

Urkiola, 2 - 48160 DERIO Bizkaiak

- Antena kolektiboak
- Antena parabolikoak
- TB digitala, lurreko TB eta satellite bidezko TB
- Atezain automatikoak
- Bideo-atezainak
- Mantentze-kontratua
- Zirkuitu itxiko telebista

gugoratu 2010ean utziako zaila telebista
analogikoa bidez transmititzeari
eta LTD. erara muddatu beharko dela

Deitu konpromiso barik ANTENAS VIZCAYARA

94 454 14 60



Egun guztiak Euskara Eguna iza



Zirika Zirkus

Abenduaren 3a, Euskararen Nazioarteko Eguna. Data horren inguruan ekitaldi sorta zabala antolatu dute mundu osoko euskaltzaleek. Txorierrin ere hainbat ikuskizunez gozatzeko aukera izan dugu, euskaraz, azaroaren 30etik abenduaren 4ra bitartean: antzezlanak, bertsolariak, euskal kantuak... Guk ere geure harri-koskorra ekarri dugu euskararen normalizazioaren bidean. Baina harri-koskorrek harri handi bat osatzen dute. Euskararen Egunak irudi hauek utzi dizkigu aurten Derion.


Argazkiak: Gaizka Eguskiza eta Garazi Astorkiza




Magic clown



Umeek ongietorria eman zioten euskarari



n daitezen



Bertsolariak



Iñaxitoren ametsak antzezlanak



Euskal Kanturik Onena

Lanbideak, Enpresak, Enpresak
ESPERANZA ALIATUA
Lanbideak, Enpresak

ZORIONAK ETA URTE BERRI ONI

Hizketan gaitasunak: orri-mailekua eta gaitasunak
Orri-mailekua
-Hizketan gaitasunak (1.000 orri)
-Hizketan gaitasunak (1.000 orri)
-Hizketan gaitasunak (1.000 orri)
Gaitasunak
-Hizketan gaitasunak (1.000 orri)
-Hizketan gaitasunak (1.000 orri)
-Hizketan gaitasunak (1.000 orri)
LAN (Lanbide Enpresaren Enpresak)
-Hizketan gaitasunak (1.000 orri)
-Hizketan gaitasunak (1.000 orri)
-Hizketan gaitasunak (1.000 orri)
ENPRESAK (Enpresaren Enpresak)
-Hizketan gaitasunak (1.000 orri)
-Hizketan gaitasunak (1.000 orri)
-Hizketan gaitasunak (1.000 orri)
ENPRESAK (Enpresaren Enpresak)
-Hizketan gaitasunak (1.000 orri)
-Hizketan gaitasunak (1.000 orri)
-Hizketan gaitasunak (1.000 orri)

Lanbideak, Enpresak, Enpresak



Behargintzan berdintasunerako bidean gaude

Behargintza Txorierri KIDEITU programaren partaidea da 2005. urtearen amaieratik hona. Programa hori EQUAL ekimen europarraren barruan dago eta Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak koordinatzen du. Emakunderekin batera instituzio hauek ere hartzen dute parte KIDEITU programan: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarteratze eta Enplegu Zuzendaritza Nagusiak, Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Trebakuntza Sailak, Bilboko Caritas-ek, EUDELEK (Euskadiko Udalen Elkarteak) eta GARAPENek (Euskal Herriko Garapen Agentzien Elkarteak). Azken hori Gasteizko Udalak, DEBEGESAK (Eibarreko tokiko garapen agentzia) eta Behargintza Txorierri ordezkatzen dute.

KIDEITU programa laster emango dute

amaitutzat eta ondorioz, horren emaitzak balaratzeko ordua da. Ana Sonia Elorriaga KIDEITU eta Behargintza Txorierriko Enpresa-sortze Sailaren arduradunaren esanetan, programa europar batean parte hartzea oso esperientzia aberasgarria da beti, pertsonalki zein profesionalki. Eta are gehiago, programak Euskal Autonomi Erkidegoko okupazio eta heziketako sisteman genero perspektiba partaidetza-era batean eta modu integral batean ezartzea badu helburu.

KIDEITU programaren xedeak betetzeko, ezinbestekoak izan diren gakoaren artean hauek aipa daitezke: Behargintza Txorierriko gerentzia eta lantalde osoa proiektuan inplikatzeko; aukera-berdintasuneko agentea kontratatzea, aurkeztutako ekimenak bultzatu eta aurrera eramateko; generoaren gaian adituak diren profesionalak

elkarrekin lan egitea; eta antolatutako ekintza ezberdinetan –Emakume ekintzaileen foroa, Gaitasun ekintzaileen tailerra...- parte hartu duten Txorierriko emakumeen esperientzia. Emakume horiekin batera KIDEITU programan aritu gara eta, horrezaz gainera, euren gainetik ikasi ere egin dugu.

Behargintza Txorierri hainbat eginkizun eraman du aurrera programari esker:

- Baldintza egokiak ezartzea, genero-berdintasunaren bidean lan-prozesu bat zabaltzeko, eta horren egonkortasuna eta iraupena bermatzeko.
- Agentzietatik egiten diren estatistikak eta ikerketak genero-berdintasunaren irizpideetara egokitzea, emakumeen eta gizonen arteko errealitate bereizgarria erakutsi eta ulertzeko.
- Gerentzia eta lantaldea berdintasun-

BEHARGINTZA TXORIERRIKO EMPRENDER



politikak ezartzearen beharrea sentsibilizatu, hezi eta trebatzea; eta genero-perspektiba agentzian bertan ezartzea.

- Barne-adiskidetzeko plana diseinatzea, langileek familia eta lana uztar ditzaten.

- Behargintza Txorierrin lan egiteko era berrien alde egitea, 2005. urteko Berdintasun-Legea ezarriz.

- Behargintzatik zabaltzen diren dokumentu eta euskarri guztietan barne zein kanpo-komunikazio ez sexista bermatzea.

- Zerbitzua aukera-berdintasunaren parametroak kontuan hartuta planifikatzea eta diseinatzea.

- Kultura ekintzailearen sustapenean eta negozioen sortzean eta sendotzean generoaren irizpideei jarraitzen dien enpresak sortzeko aholkularitza bat diseinatzea. Horrek negozioen itxiera-tasa gutxitzea eta negozioak sustatzen dituztenen gaitasunak hobetzea ditu helburu nagusitatzat, emakumeen ekintzailetza espresuki azpimarratuz.

Badakigu oraindik bide luzea duguna ibiltzeko eta, era berean, asko duguna ikasi eta egiteko. Baina **Behargintza Txorierrin**

“Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egitea dugu behar”

“Zeuk ere berdintasuna lor dezakezu”

“Elkarrekin lan egiten badugu, hurbilago egongo da”

beste ikuspuntu batetik ikusi, aztertu eta lan egiten hasiak gara; generoaren ikuspuntutik hain zuzen ere.

Begirakune berri horrek bide zuzenera eramaten gaitu, eta inportanteena dena: ez dago atzera egiteko modurik. Bidea ez da proiektuarekin batera amaitzen, baizik eta gure egunekotasunaren parte da. Horrela, **Behargintza Txorierrin Urteko Plangintza** generoaren ikuspuntutik egin du lehenengo aldiz 2008. urterako.

Generoaren ikuspuntua ezartzeak eta emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren alde lan egiteak aldaketa pertsonalak eta profesionalak ekartzen dituzte, eta ziur gaude horiek gure eskualdeko gizarte eta ekonomia-garapenerako ezinbestekoak direna. Hori dela-eta, Behargintza Txorierrin eskualdeko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde jarraituko du lan egiten, informazio, sentsibilizazio eta aholkularitza-ekintzen bidez. Ekintzok Txorierrin aritzen diren emakumei eta enpresei daude zuzenduta.



**EMPREDER ZERBITZUA
BEHARGINTZA TXORIERRI**
Berreteaga Poligonoa 13 – A
48150 – Sondika (Bizkaia)
Tfnoa.: 94.453.63.70
www.e-txorierrin.com
www.garapen.net



ZERBITZUAREN BIDEZ SORTUTAKO ENPRESAK




Euskarazko opariak erost

Puzzleak eta ipuinak seme-alabentzat, musika ilobentzat, libururen bat bikotearentzat... Gabonetako opariak erostea ez da lan erraza, eta are gutxiago euskaraz oparitu nahi badugu. Izan ere, etxean ez dugu euskarazko produktuei buruzko informazio handirik jasotzen, eta liburudend

en eta diskodenden eskaintzara jotzea baino beste erremediorik ez dugu izaten. Euskarazko produktuen katalogoak behar hori erraztea du helburu eta horretarako, euskaraz argitaratzen diren produktu berrienak batu dituzte bertan. Katalogoak zortzi atal ditu: musika, informatika, bideo eta DVDak, liburuak, komikiak, joko eta jostailuak eta aldizkariak; eta produktuen gitxi-gora beherako salneurria eta



Antxeta eta katua
2-8 urte
EITB 10-20€




Babe txerritxo ausarta
+4 urte
EITB 10-20€




Azti ikaslea
TINKO
10-20€




Gezi urdina
2-7 urte
TINKO 10-20€




Auskalo (eusko triviale)
IKAST. ELKARTEA
>30€




Aitor berriitsu
ALDAY
>30€




Bikoteen jokoa
TTARTTALO
<10€




Faraaien garagardoa
SAURE
10-20€



Gartxot
ARGIA LIBURUAK
10-20€



Kakarraldo
XIRIKA
10-20€




Nire gorputza (CD)
MARA-MARA
10-20€



Egizu lo (liburua+CD)
ELKAR
>30€



Munduko jolasak
TXATXILIPURDI
<10€



Euskal kantak
EREIN
20-30€

filmak

jostailu eta
jokoak

komikiak


gurasoentzat



ea gero eta errazago duzu

nori dauden zuzenduta ere agertzen dira zehazturik. Liburuxka Txorierrin banatu da; hala ere, ez baduzu jaso, www.katalogoa.org helbidean kontsulta dezakezu. Gainera, produktuak Txorierriko liburuden-detan topa ditzakezu. Eta izan ezean, eskatu eta handik egun gutxira ekarriko dizute.


musika




Gari.
Esperantza kondenatua
ELKAR 10-20€



Gu eta gutarrak.
LANKU
10-20€




The Uski's.
Barikun
OIHUKA 10-20€




Oskorri.
Banda
ELKAR 10-20€


informatika



Letrak jokagai
ELHUYAR
20-30€



Olentzeroren basoa
IKAST. ELKARTEA
10-20€




Gure ingurumena
ELHUYAR
10-20€


liburuak




Bubu ehiztari
IBAIZABAL
10-20€



Pirata zaharra
TTARTTALO
10-20€



Atearen atzean
ELKAR
<10€




Zaku bete hauts
AIZKORRI
10-20€


aldizkariak




Entzun!
Musika hilabetekaria
Urtea: 15€




Luma
Denborapasa umeentzat
Urtea: 33€



Xirika
Gazteon hilabetekaria
Urtea: 39€



De balde
hilabetekaria
Urtea: 9€



Elbereth

estetika eta masaje-zentroa
gizonentzat eta emakumeentzat



aurpegi eta gorputz-tratamendu pertsonalizatuak ✕

hainbat depilazio mota ✕

ezkongaitentzako zerbitzua ✕

masaje terapeutikoak ✕

solariuma ✕

erlaxatzeko tratamenduak ✕

harri beroekin-
Amazonaseko ametas-

makillajea ✕

ikastaroak-
zure etxean bertan-

20 urte

beste gurekin
denbora zehar

Elbereth

Cestero 4, behea (Kultur Etxearen aurrean)

48150 SONDIKA

Tel. 94 453 14 09

Hurtado de Amezaga, 27, 7. 3. degt

48008 BILBO

Tel. 94 410 23 95



Bego Torre eta Iñaki Gonzalez, Alkartasun Lagun Taldearen idazkaria eta presidentea

“Gurea isileko beharra da”

Irabazteko asmorik bako alkartea zarie.

Oso behar isila egiten dogu; hainbat lekutara joaten gara adinekoak bisitatzera, eta jentek ez daki. Halan be, zamudioztarrek gure barri izatea komenigarria zan, erretizentziarik ez egoteko.

Helburua argi dozue: gaixorik, ezindu edo geriatrikoetan dagozan zamudioztarrek bisitatzera, animuak eta konpainia emoteko.

Bisitak Derioko, Erandioko eta Sondikako zaharren egoitzetan egiten doguz, baina etxeetara be joaten gara. Dana dala, laguntza emoten deutsegun pertsonak adinekoak ala gazteak izan daitezke; ez dogu mugarik jartzen. Aurtengo udan ume batzuk be zaindu doguz, lana dala-eta gurasoak ezin ziralako eurekaz egon.

Pentsatu baino konpainia handiago behar dabe gure nagusiek?


Bai. Egoitzetan dagozan askok ez dabe bisitarik jasoten, eta hurbiltzen jakuz. Zamudioztar bat bisitatzera zoaz eta bost lagunek osatutako tertulia baten parte hartzen amaitzen dozu. Eurentzat oso esperientzia positiboa da: lehenengo eta behin, inportante sentitzen dira, bisita dabelako; eta bigarrenaz, barrena lasaitu egiten dabe. Ganera, familiakoa ez dan

Alkartea joan dan uztaitlean eratu zan ofizialki eta dagoenako 500 bisitatiek gora egin dabez. Zamudioko Alkartasun Lagun Taldea Bego Torrek bultzatutako ekimena da. Herriko alkatesak eta parrokoak be ezinbesteko papera izan eben kideak batzeko orduan, eta gaur egun 13 lagun dira alkartean dabizenak.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina



“Bat bisitatzera zoaz, eta bost lagunek osatutako tertulia baten parte hartzen amaitzen dozu”



aurpegia ikustea gustatzen jake.

Zeintzuk dira dabean beharizanik nagusienak?

Afektiboak. Egoitzetan oso ondo zainduta dagoz arlo guztietan: otorduak, medikuak... Baina burua ondo dauana etxeagaz gogoratzen da asko. Ordutegi batera moldatu behar dira eta hori ez dabe pozik hartzen; emakumeek, batez be. Eta, ganera, ondoan dozuna ez badabil ondo, ba, deprimitu egiten zara. Ildo horretan, Zamudioko zaharren egoitza barria laster zabalduko da, eta gustatuko litxakigu bertan, adinekoen egoera kontuan hartuta, modulu ezberdinak atontzea, horrelakorik saihesteko. Ondo dagoana ondo be badagoan besteategaz jar dagiala, behintzat!

Eta etxean dagozanak?

Euren gauzei buruz beste batzukaz berba egitea gustatzen jake horreei. Baina familiek guk euren senideak egoitzetan bisitatzea pozik onartzen badabe be, ez jake asko gustatzen etxera joan gaitezala. Zamudio oso herri txikia da, eta gure taldeak hasi baino ez dau egin... Hemendik urte bira gauzak aldatzea espero dogu.

Zelan pasatzen dozue denborea aita-amamakaz?

Euren bizitzaren gorabeherak kontatzen deusuez behin eta barriro; zuk entzuteak pozten ditu. Euren ohituretara moldatu behar zara, baina abila be izan behar dozu

“ Senideak egoitzetan bisitatzea pozik onartzen badabe be, familiei ez jake asko gustatzen etxera joan gaitezala ”

“ Zaintzaileek be aisialdirako momentuak izatea oso garrantzitsua da ”

egunekotasun horretatik atera eta beste gauza batzuei errepara dakiezan. Motibatu behar jake: “Entzun dozu zer esan daben irratan?”... Beste alde batetik, gestio sinpleren bat egin behar badabe, hori egiten be laguntzen deusezu.

Eta nagusia zaintzen dauan pertsona horri be atsedean txiki bat emoten deusue.

Bai, zaintzaileek aisialdirako momentuak izatea oso garrantzitsua da, pixkanaka-pixkanaka okerrera doan pertsona bategaz egotea gogorra dalako. Eta zaintzaileak be desanimatu egiten dira.

Zelan izan behar da zuen beharra egiten dauana?

Zuhurra, batez be. Aitita-amamek isilmandatu asko egiten deusuez eta ezin dira hortik kontatu. Ez zan ona izango ez bera-rentzat, ez bere familiarentzat, ezta alkar-tearentzat be. Min handia egin daiteke. Eta bokazioa... Izan be, orokorrean geriatriko batera ez zara joaten barre egitera, baizik eta ondo ez dagoan pertsona bati konpainia emotera. Eta maitasuna deusezu azkenean... Oso pozik jartzen dira gu ikustean, eta gozamina da guretzat. Aurrera jarraitzen laguntzen deusku horrek.

Zamudioko zaharren egoitza barria uda baino lehenago zabalduko ei dabe...


Beharra banatu beharko dogu; askok bertora etorri nahiago izango dabe, baina beste askok be orain dagoan lekuan gelditu nahiago dabe...

Berbaldi batzuk antolatzeko asmoa dozue.

Bai, familiek geriatrikoak eta eguneko egoitzak hobeto ezagutu dagiezan: zelango abantailak dabean nagusientzat, zelango bizitza egiten dan bertan, zelango zaintzak emoten diran... Inportantea da jentea hori guztiaz ohartzea.

Zer egin behar da zuek harremanetan jartzeko?

Udaletxera jo eta gugaz harremanetan jarri gura dala esatea, besterik ez.



SONDIKA
Clínica veterinaria

C/ Juan Carlos I, 141 - Istea
48150 Sondika (Bizkaia)
Tel: 94 403 02 88

urgencias 24 horas
607 85 60 39

Asistencia a domicilio



Eror zahar gure instalazio berrietara

Libano: kontrasteen lurraldea

Libano munduko Estatu txikienetarikoa da: 10.400 Km2 besterik ez. 4,6 milioi libanoarretatik laurden bat inguru Beiruten bizi dira. Populazioaren %38 kristaua da, eta %55ek musulmantzat dauka bere burua. Libanon 18 azpitalde erlijioso daude guztira. Gainera, 250.000 bat errefuxiatu palestinar bizi dira lurralde honetan. Datu hauek funtsezkoak dira bertako egoera ulertzeko.

Testua eta argazkiak: Igor Urrutikoetxea

Beirut hiriburua duen lurralde hori ezagutzeko asmoz bertan izan gara joan den urri eta azaro bitartean. Lurralde txikia tamainaz; Beirutetik gehien jota ordu batera daude herri guztiak.

Talde ezberdinen arteko guda zibila bizi izan zuen Libanok 1975etik 1990era. Israelek ere 1982tik 2000ra Libanoko hegoaldea okupatu zuen, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) bertatik alde egiteko agindu bazion ere. Azkenik, 2000. urtean alde egin behar izan zuen, baina iazko uztailean berriro herrialde hau eraso zuen ia 2.000 herritar erailez. Dena den, Estatu sionistak kasu bietan porrot handiak jasan ditu Libanon eta bertatik joan behar izan du, batik bat Hizbulah erakundearen erasoak etengabe jasan dituelako. Guda hauen guztien lekukotza dira Libanoko hainbat erakin apurtu, monumentu zulatu edo berrekitzen ari diren herri eta auzoak...

Haret Hreit-en kartel hauek irakur daitetzeke toki askotan: "Irango gobernuaren laguntzarekin berreraikia". Izan ere, Iran-eko txiitek Libanon dauden neba-arrebei laguntzen diete. Mendebaldar atzeritar-rrak ez dira normalean Haret Hreit-era joaten, horregatik jende guztia gure presentziaz ohartu zen, eta adeitsu gurekin berba egin gura izan zuten.

Hurrengo egunean hegoaldera abiatu ginen, eta libaniar armadaren baimena lortu ondoren, NBEko soldaduak dauden eremuan sartu ginen, Beaufort-eko Gaztelua, Fatimako Atea eta Al Khiam-go kartzela ikusteko. Zonalde hau munduko puntu "beroenetarikoa" da, eta ez tenperaturagatik, tentsio politikoagatik baino. Kilometro gutxi batzuk hartzen dituen lur eremu honetan "errazimo lehergailuak" bota zituen Israelgo armadak iaz, eta orain

libanoarrak berauek kentzen ari dira. Hemen dauden herrixketan populazio txiia bizi da, eta urteetan sionisten basakeriak zuzenean jasan dituzte. Horregatik hegoaldekoak eta Libano ekialdean dagoen Bekaa haranekoak dira gudatan hil dituzten martiri gehienak, Hizbulah eta Amal alderdietakoak. Euren argazkiak herrietako kaleetan ikus daitezke nonahi.

Baina Libano asko daude, eta agian errealitate ezezagunena bertan bizirauten duten 250.000 palestinarrena da. Guk errefuxiatu eremu batzuk bisitatzeko aukera izan genuen. Palestinar errefuxiatu gehienak 1948, 1967 eta 1971ean etorritakoak dira, eta bizi-baldintza kaskarrak dituzte benetan: 12 errefuxiatu eremu daude egun Libanon, errefuxiatuek ez dute Libanoko nazionalitate ezta pasaporterik, %55 langa-

bezian dago eta familien %70 Libanoko pobrezia mailatik behera bizi dira. Libanoko armadak hainbat errefuxiatu eremutan *check point* iraunkorrak jarri dituenez, kartzela handi bat bilakatu ditu. Gu ere Rasadiyeh-ko eremutik ateratzerakoan Libanoko soldaduek ordubete eduki gintuzten geldituta, bertara zertara joan ginen galde-tuz.

Egoera bereziki larria da Baddawin. Nahar El Bared-etik kanporatu zituzten 22.000 errefuxiatu bertako eskoletan eta

“Libano borroka da, dotorezia eta parranda, kultura...”

Baddawi





- Loria industrialak
- Sareak
- Eguzki-ohitak
- Alakatzeko lona

Toluna

Toluna, S.L. Ind. P.O.

Tel: 94 482 12 48

Fax: 94 482 37 44

Gazteluagailu onak





Amekhar eta Amekhar

Amekhar eta Amekhar

Amekhar eta Amekhar



Amekhar eta Amekhar

Amekhar eta Amekhar

Amekhar eta Amekhar

kaleetan bizi dira, baldintza benetan kez-
kagarrietan. Umeak, pertsona nagusiak...
denek lo egin behar dute lurreen, eta klase
batean bizpahiru familia bizi dira.

Baina egoera gordin hauen alboan ere,
bada beste Libano bat, egunero ziztu bizian
bizi dana eta Europari so dagoena. Uste
dugunaren aurka, Libanon jende diruduna
ere bada, gehien bat sunnien eta kristauen
artean, eta kontrastea izugarria da Libano-
ko zonalde batetik bestera.

Honen guztiaren paradigma Beirut da,
Ekialde Hurbileko "Bizioaren Hiriburua"
askorentzat. Herrialde arabiarretako hain-
bat aberats Beirutera joaten da, euren
lurraldean debekaturik dauden zenbait
"plazer" bila: alkohola, sexua, hatxis-a...
Hiri liluragarri honetan posible da emaku-
meek *hiyab*-a (buruko zapia) janzten duten
eta alkoholik nekez aurkitu daitekeen auzo
batetik, alkohol litroak zerbitzatzen dituz-
ten diskotekak gaueko ordu txikietaraino
zabalik dauden beste auzo batera pasatzea.
Gazte kristauak gainera Europara begira
bizi dira, Ferrari edo Porsche-a gidatzen
duten bitartean. Emakumeek Bilbo edo
Berlingo emakumeen janzkera bera dute.
Beiruteko Amerikar Unibertsitateko kan-
pusean zaudenean edo Corniche itsasertze-
ko pasealekuko jatetxeren batean *nargile*
(ur-pipa) bat lasai eta goxoki erretzen
duzun bitartean ezinezkoa irudituko zaizu

munduko lurralde politikoki gatazkatsue-
netarikoan zaudela pentsatzea.

Libano borroka da, Libano dotorezia
eta parranda da, baina Libano kultura ere
bada. Horren lekuko dira Baalbek-eko hon-
dar erromatarrak, alfabeto modernoaren
sorrera ezagutu zuen Biblos hiria, Tripoliko
hammam-ak edota Tiro eta Sidon bezelako
kostaldeko herriak.

Libano, Ekialde Hurbileko kontraste

guztiak bere baitan biltzen dituen lurral-
dea. Khalil Gibran idazle libanoar handiak
bere sorterriaz behin esan zuen legez,
"Bada Ekialde Hurbilean logureari aurre
egiten dion eta nagusitu egingo den ira-
tzartze bat, eguzkia gidaritzat eta egunsen-
tia armadatzat dituen". Eta nik "insa-
llah"(hala bedi) diotsot neure buruari
Tiroko kaian beste egun baten bukaera
ikusten ari naizen bitartean.

Qanaren sarrera



EUSKO KULTUR ETXEA
Euzko Kultur Etxea (Euzko Kultur Etxea)
Euzko Kultur Etxea (Euzko Kultur Etxea)

ANTZERKIA

ANTZERKIA
Antzerkia (Antzerkia)
Antzerkia (Antzerkia)

EPA
EPA (EPA)
EPA (EPA)

BBK
BBK (BBK)
BBK (BBK)

ANTZERKIA
Antzerkia (Antzerkia)
Antzerkia (Antzerkia)

ANTZERKIA
Antzerkia (Antzerkia)
Antzerkia (Antzerkia)

ANTZERKIA
Antzerkia (Antzerkia)
Antzerkia (Antzerkia)


ZINEA

ZINEA
Zinea (Zinea)
Zinea (Zinea)

ZINEA
Zinea (Zinea)
Zinea (Zinea)

Zamudion batu Txorierriko koru-tald

Euren 20. urtebetetzean, Zamudioko musikaldi ederrak entz



Hamaika (eta zenbaki zehatza da) neska gaztez osotutako talde korala da. Euren abots zuri, eder, landuak entzuterakoan eta euren koreografia ikusterakoan esan leike nonbaiteko musika eskolako ikasle-akaz hornituta dagoen talde koral gaztea dala. Baina ez, Zamudion sortu zan eta 20 urtez dabilz Txorierrin eta munduan zehar abesten, hasiera-hasieratik Iratxe Gezuragaren batutapean.

Eta hogeit urteko behar sendoak ospatzea merezi eban legez, hor ibili dira gogotsu urtebetetzea prestatzen kalidade handiko entzunaldiak eskaintzeko asmoagaz. Urtebete lehenago hasita, behar asko egin dabe ospakizunak prestatzeko, batez be azken hilabeteen (hiru kontzertu, antzinako eta oraingo korukideen aforia eta beste ekitaldi batzuk).

Baina merezidu izan dau ahaleginak. Herrirako eta Txorierrirako kultur ekitaldi aberatsa eskaini dabe: abesti eta koru desberdinak, herrietako folklore desberdinak, abesteko modu desberdinak, zuzentzeko era desberdinak. Holan, azaroaren 3an, Tolosako Lehiaketa ospetsuan parte hartu ondoren, maila oso altua dauen SYC Ensemble Singers Singapurreko abesbatzak eskaini eban kontzertu ederra, polifonia eta folklorea buztartuz. Eta azaroaren 10ean, Leioako Kontserbatorioan sortu dan Vocalia ahots zurien taldearen txanda izan zan, Basilio Astulez maisuaren eskutik. Euren ospearen



atzetik jentea be joaten dan legez, Zamudioko eleizea bete-beterik egon zan kontzertuaz gozatzeko. Inbidia barik, atzerri-ra joan barik be ondo-ondoan daukaguz kalidade handiko taldeak.

Ospakizunei amaiera musikala emateko, azaroaren 17an Txorierriko korutalde guztiak batu ziran: Sondikako Txuma Olague (abots mistoak), Derioko Iparralde (abots lodiak), Lezamako Ekidazu (abots mistoak), Larrabetzuko Gaztelumendi (abots mistoak) Sondikako Txuma Olague (abots lodiak) eta anfitrioiak, Zamudioko Kamara Korala (abots zuriak). Ez da erraza egun berean batzea. Txorierriko musika koralaren potentziala ikusteko aukera paregabea izan zan.

Testua: Popspolin
Argazkiak: Sondika Goiri argazki taldea

dira lehenengoz le guztiak egun berean

**Kamara Koralaren lan bikainari esker
uteko aukerea izan dogu**

Protagonisten inpresioak

Urteurrenerako prestakizunek sortzen dabezan nerbioak lasaitu ondoren, koraleko kideak banan-banan hartu eta euren gogoetak jakinarazteko eskatu deutsegu.

● **Iratxe Gezuraga, koruaren zuzendaria:** "Hasieran zalantzan egon ginan jenteak parte hartuko eban edo ez, baina azkenean hainbat jente batu da, asko kanpokoak, eta bertokoak be bai. Koruen aldetik be oso erantzun ona euki dogu. Singapurrekoakaz oso gustura egon ginan, eta Vocaliagaz, eleizea ganezka egon zan. Hirugarren kontzerturako Txorierriko beste abesbatzek oso jarrera ona izan dabe gugaz, gure urtebetetzean parte hartzeko eta kontzertu polita eta arina emoteko. Udaletik be laguntza handia izan dogu, kulturako jentea beti alboan sentitu dogu, Amagoiaren antolatze lan eskergea be aitatu behar dot... Balorazino oso positiboa egiten dot.

Bestalde, Santa Zezili dala-eta, korutik pasatu diran guztiak batu genduzan bazkaritxu baten. Orain 11 baino ez gagoz eta abeslari gehiago beharko gendukez, baina jakin behar da 75 bat pertsona pasau dirala hementik. Gehienek ikasketen edo lanaren erruz itxi dabe eta korua aldatzen joan da. Baina oso pozik nago eta beste 20 urte edo gehiago jarraitzeko asmoa badaukat. Aurrerantzean, betiko kontzertuetatik eta hainbat konpromisoetatik aparte, badogu ideiatxua CD bat argitaratzeko, baina prisa barik. Une hone tan gurago dot neska gehiago erakarri korura, 20 bat abeslarigaz gauza pilo bat egin daiteke".

● **Amagoia Gezuraga, koruaren lehendakaria**

ria eta abeslaria: "Urtebetetze bat ospatzen danean, opariak egoten dira, besteak beste. 20 urte betetzea opari bat izan da guretzat, eta guk be opariak herriari eta musikazale guztiei eskaini gurean, azaroko musika ekintza guztiak antolatu doguz".

● **Olatz Begoña:** "Egin doguzan ekintzetatik, jaien hasierako pregoilariak izana nabarmenduko neuke. Merezitako esperientzia izan da, horretarako be prestaketa egin genduan eta jendeak zoriondu euskun. Abeslari, abeslari ohi eta lagunen bazkaria be mundiala izan zan, barreak, emozioak, eta sorpresa ugari".

● **Iratxe Bermejo:** "Hasieran, abesteaz gozatzen dogun pertsona talde bat bezala alkartzan joan gara, eta urteakaz lagun talde aberasgarri bat bilakatu gara".

● **Irantzu Bilbao:** "Koruan 20 urteak ez egon arren, oso pozgarria izan da alkarrekin konpartitu izana, bai jenteagaz eta beste koru batzukaz".

● **Olite Bilbao:** "Abesteak lasaitu egiten nau eta koruko kideek pertsonalki asko emoten deuste".

● **Itziar Cabrejas:** "Ahotsen, lagunen eta bizipenen alkarketa da".

● **Ane Mateos:** "Kontzertu bikainak, harrera ezin hobea".

● **Onintze Matias:** "Musikaren bitartez, 20 urteren emozio eta bizipenen isla".

● **Aintzane. Ramos:** "Danok alkarregaz lan egin ezkeru gauzak sortzen dira. Hori bai, batzuk tiratu behar dabe gauzak ondo joateko. Beste 20 urte betetzea ez da ezinezkoa".







Udazkena Txorierrin

Eroritako hostoak, nostalgia, horia eta marroia... Udazkenak hainbat gauza iradokitzen ditu, natura-esparru batean, batez ere. Txorierrin berdeguneak egon badaude, noski, eta horietako bat Teknologi Parkea dugu, gezurra badirudi ere. Bertan zuhaitzez eta kolorez betetako hiru ibilbide oinez egiteko aukera dago. Bata

bestea baino lasaiagoa, atseginagoa... Lehenengo ibilbidetik buelta bat eman dugu eta udazkenak bere handitasuna erakutsi digu. Dagoeneko pasatu da udazkena, baina bidean irudi xarmangarriak utzi dizkigu. Hona hemen adibide batzuk...

Testua eta argazkiak: Gaizka Eguskiza





Cava edo burbuilak


Urte amaiera gero eta hurbilago dago, eta burbuilak jaiaren ezinbesteko osagarri bihurtu ditugu; cava sasoikoa baino sasoikoago egin dugu. Eta burbuilak poztu egiten dira, baina, betiere, etsipen eta tristura puntu batekin. Izan ere, ez zaie gustatzen eurekin soilik gogoratzea ospakizunetan topa egiteko edo Gabonei glamour itxura emateko. Adierazi nahi digute urtearen edozein sasoitan izan daitezkeela maizago lagun egokiak eta estimatuak.

Cava botila bakoitzaren etiketan ikusi ahal dugu ardoak zein burbuilek zenbat azukre gramo daukaten: *brut natureak*, 0 g; *estra brutak*, 0-6 g; *brutak*, 0-15 g; *estralehorrak*, 12-20 g; *lehorrak*, 17-35 g; *erdilehorrak*, 35-50 g; eta *gozoak*, 50 g baino gehiago. Etiketan ere topa dezakegu, merkatura atera aurretik, cavaren gutxieneko ontzenbora zein izan den: gaztea, 9 hilabete; erreserba, 15 hilabete; erreserba handia, 30 hilabete; eta erreserba berezia, auskalo!

Burbuilak tamaina ezberdinetan sortzen dira kopa barruan (zenbat eta txikiagoak eta finagoak, hobeto), eta cavaren kalitatearen berri ematen digute. Behetik gorako zutabe bertikalek "arrosarioak" osatzen dituzte. Goiko aldera heltzen direnean, burbuila batzuek hainbat forma ("kate begiak") eratzen dituzte eta beste batzuek izarrez egindako biribila ("koroa") era-

tzen dute. Halako elementuak gure kopan agertu eta hantxe edukitzeak aditzera ematen digu eskuartean dugunak gure miresmena merezi duela.

Cavaren garraztasuna altua da, baina neurrikoa ere bai. Hari eta karbonikoen presentziari esker, oso erraza gertatzen zaigu cava hainbat jakirekin "ezkontzea". Baita normalean "ezkontzen" zailak diren jakiekin ere (berakata, ospina, arrautza...). Horregatik, animatu nahi zaituztet cava gehiago ezagutzera eta dastatzera. Betiere jakinda azukre gramoen gehiegizko kontsumoa egiten badugu, urte berria buruko minaren eta ajearen konpainiarekin hasiko dugula. On egin!



Iñaki Suarez,
sumillera

Gaztai eta limoi tarta

Osagaiak:


- 300 g Filadelfia gaztai
- 500 ml esnegain
- 4 koilarakada azukre
- sobre bi limoizko gelatina
- limoi baten zukua
- 250 g Maria gailetta
- 100 g gurin
- azukrea



Prestatzeko era:

Gailetak birrindu eta gurina urtuko dogu. Biak ondo nahastau eta molde baten zabalduko dogu. Gaztaia, esnegaina, azukrea, limoi zukua eta sobre bat gelatina (aurretik ur bero apur batez desegingo dogu) nahastau eta irabiatuko dogu. Nahasketea moldera bota eta hozkailuan izango dogu 4 orduan. Hozten danean, beste gelatina sobrea ur berotan urtuko dogu eta tartari botako deusagu ganetik. Hozkailura sartuko dogu berriro. (Tartea bezperan egiten badugu, hobeto) Molde-tik atera eta hotz zerbitzatuko dogu.

"LAIA HOTEL MUSEOA"



Derion kokatuta, berau da hotel ekologiko bakarra energia berriztagarrien sistemei esker.


Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gainera, euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.

Spa zentroak relax zirkuitu hau eskaintzen dizu: sauna, vaporiuma, jacuzzi eta dutxa inguratzailea eta infragorritzko ohea.

Parke teknologikoa

Eraikina 806. Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Aurreko galderaren erantzuna:
Zamudioko lagun talde bat
Irabazlea:
Isabel Bilbao



LEHIAKETA

Asmatu galdera eta bi lagunentzako aste-buru batean gau bat pasa Laia Hotel Museoa, gela bikoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuitua, barne. Hilabete honetako galdera zera da:

Nortzuek hartu dute parte ETBko saio batean?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehenago, telefonoz (944523447), e-mailez (aikor-txori@yahoo.es), edota postaz (**AIKOR!** aldizkaria, Aresti kalea 2, 48016, Zamudio).

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

AVR TENETXE S.A.

BARCELONATXEN 144 METRO 2.114. BORDOPLAZA 1.4
HERAENKOTZEN - LORLOKOTZEN

AGINTARITZA 24 OREZKORATZ

ORDENATZA 197

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999 (Bilbao)

AGINTARITZA 24

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999



Ukan
produkt

Agintaritza 24 orain

CONSTRUCCIONES LANDETANE, S.L.



ANDER ETXEBARRIA
BERRI - BILBO

ORDENATZA 197 - 499 494 - 495

947 499 494

fax: 947 494 496

orain 19999

Agintaritza 24 orain

947 499 494

fax: 947 494 496

orain 19999

JAKARRIDENDX



Jaime Zabala Galtzeren

ORDENATZA 197

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496



OXANGOITI

Kutur Elkarteak - TABERNA

ORDENATZA 197 - 499 494 - 495

Euskal prestatuak
etxerak

Agintaritza 24 orain

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999



ORDENATZA 197 - 499 494 - 495

Agintaritza 24 orain

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999

Agintaritza 24 orain

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999

Agintaritza 24 orain

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999



LARRASETZU AURRERA Euskal Herria AURRERA

Jose, Jose Rigel, Olexa eta Josea
Larrasetzu Herria

Agintaritza 24 orain

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999

KARLOS

ORDENATZA 197 - 499 494 - 495

Agintaritza 24 orain

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999

Agintaritza 24 orain

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999

PAPERA
ETA
PINTURA
ORO HAR

M. Jesus Fernandez Gallarza ESTANCO

ORDENATZA 197 - 499 494 - 495

Agintaritza 24 orain

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999

Agintaritza 24 orain

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999



ONDO ERORI

JAKARRA + FRUTA

ORDENATZA 197 - 499 494 - 495

Agintaritza 24 orain

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999

Agintaritza 24 orain

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999



ORDENATZA 197 - 499 494 - 495

Agintaritza 24 orain

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999

Agintaritza 24 orain

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999

Agintaritza 24 orain

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999



ORDENATZA 197 - 499 494 - 495

Agintaritza 24 orain

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999

Gribbing Sport

ORDENATZA 197 - 499 494 - 495

Agintaritza 24 orain

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999

Agintaritza 24 orain

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999

Agintaritza 24 orain

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999

UNIBE KOLORE



ORDENATZA 197 - 499 494 - 495

Agintaritza 24 orain

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999

Agintaritza 24 orain

947 499 494 - 495

fax: 947 494 496

orain 19999

Amagoia Gezuraga

-**LIBURUAK**

GAZTEENTZAT

Adio Jonas

J. K. Igerabide

Jenio gaiztoa

P. Añorga

Zanbuluko sonanbuloa

A. Kazabon

Carlota jarroiaren atzean izkutatu
zenean

E. Bidaurrezaga

Tartalo, Mari eta Herensugea

A. Hirsuta

Aitarekin arrantzan

B. Lasa

NAGUSIENTZAT

Azeria eta lehoia

E. Jiménez

Morto vivace

J. Arretxe

Etxearen negarra

F. Iuaristi

Katamalo

G. Barandiaran

Elvis hil zen urtean

X. Mendiguren

MUSIKA

Esperantzara kondenatua

Gari

Handitzen handitzen

Barikun

The Uski's

Argiak

Ken Zazpi

Anek idatzi dit zutaz

M. Urdangarin

DENBORA PASA

LETRAZOPA

F	A	E	Z	T	N	I	R	R	I	G	F	D
H	Y	F	T	X	G	E	A	Ñ	D	B	B	U
S	O	A	P	E	I	H	D	G	S	E	A	E
P	F	G	P	S	O	R	E	U	P	M	L	O
G	R	L	O	T	L	T	X	I	J	P	Z	Y
Ñ	U	J	N	E	T	H	R	S	T	D	I	A
K	R	H	G	A	N	T	X	O	A	H	M	E
R	F	S	R	I	Y	I	Ñ	J	U	I	L	K
G	A	J	M	N	B	N	N	B	S	L	B	I
E	X	P	Ñ	K	Ñ	E	K	A	I	N	T	X
Y	Z	E	O	Z	D	X	L	M	Z	J	K	U
M	A	N	T	I	L	L	E	A	B	M	K	P

A	T	I	H	P	Ñ	U	L	N	P	A	G	O
Z	Y	A	T	X	I	K	O	R	I	E	S	P
R	J	E	S	U	A	L	T	T	P	F	A	O
I	Y	S	O	G	X	H	K	P	E	O	E	H
D	F	A	H	B	E	E	L	G	R	Z	T	R
K	I	B	F	Ñ	G	A	F	M	R	Ñ	A	Y
J	U	A	D	D	I	L	E	N	A	J	M	P
E	K	L	B	Ñ	E	N	H	G	M	Y	O	G
D	X	A	E	G	U	X	T	E	L	I	T	L
Y	A	K	A	K	F	E	M	R	B	A	M	B
J	B	X	S	U	N	T	J	S	M	D	S	K
E	S	K	A	R	O	L	E	A	Z	R	X	A

Txarriboden garaia danez ia
gai zaren txarribodakaz zer
ikusiko daben **7 berba** aurkitzen*
goiko letrazopan. Kontuan
hartu egizu Txorierrin esaten
daben eran idatzita dauzela.

* "Derioztarren euskara" liburutik
jasoak.

*Ezkerraldean Aikor! 65. zen-
bakiaren erantzuna. Soloan
hartzen diren 7 ortukari.*




generazione

Karoty, mamiu,
moli-karoty, arilakata apinakirin
lata dilillo awallalo ala
mekardo (gag) bapitan.
traban kaka
empamio kagilakapay.



OSO ALTU EGITEN DUGU HEGAZ

Gure helburua sektore aeronautikoan liderrak izatea da



Gizakuntza, gure pertsonen ingurukoaren
eta ingurukoaren jantziak, hileta,
berrizuntza eta ingurumenarekiko
errespetuak dira. Baita, Biziaren
etengabe bidea.



GRUPO
Industria de Turbina Propulsoras S.A.



A black and white photograph of a woman's profile, facing left. She has dark hair tied back. A small, rectangular label with the number '26' is stuck to her forehead. The background is a vibrant red with large, stylized, light-colored letters and symbols, including a double vertical bar at the top and a large 'B' on the left. In the top right corner, there are three small, overlapping rectangular boxes, each containing the number '26' and some smaller text and icons.

26

Erreferentziako

martela:

Finantza-txarritelen

erraztasun

guztiekin eta

galnera...

Bidaia-

asistentziako

doako asgurua

abantailak era

guztietako 2.000

establizimendutan.

Deskontuak

mundu osoan

izateko gaitza.

Kontuak eta

BBK26 gida,

www.bbk.es

01040